

## KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

### GIPUZKOAN

459 positibo berri  
2.098 hildako EAEn  
16.093 positibo guztira\* UCIn EAEn

### NAFARROAN

698 positibo berri  
674 hildako  
28.575 positibo guztira UCIn Nafarroan

\*HERNANIN 521, ASTIGARRAGAN 145

# Hernanik ez du aurten Ohorezko Mailan jokatu, 12-13 galdu eta gero

Les Abelles talde valentziarrak lortu du, Villanueva de las Cañadasen, Bathcoren postua eta hernaniarrek Ohorezko B mailan aritu beharko dute asteburutik.

## HERNANI ERRUGBIA

Hernanik gertu izan zuen Ohorezko Maila, baina ez zen posible izan. Igoerako partiduan, 12-13 galdu zuen atzo Valentziako Les Abellesen aurka, Villanueva de las Cañadasen, eta horren ondorioz datorren asteburutik aurrera Ohorezko B mailan jokatu beharko du.

Helburua ez lortzea gogorra izan zen jokalarik, zaletu eta errugbi elkarreartzat partidua nola joan eta nola erabaki zen ikusita. Eguraldi ezin okerragoan, haizea eta euria etengabe egin zuen, Hernanik 12-10 irabazten zuen hiru minuturen faltan. Hala ere, Les Abellesen zelaian baloia galdu zuen Hernanik eta valentziarrek zigor kolpea baliatu zuten hernaniarren 22ko barruan. Ez zuten huts egin eta bi minutu falta zirela 12-13 aurreratu ziren valentziarrek. Hernanik, erdiko zelaitik atera zuen baloia, baina ez zuen lortu lapurtzea eta partidua ira-



Hernaniko jokalariek partidua hasi aurretik bilduta zelaian.

bazteko ametsa eta igoera bere zelaian amaitu zen.

### Nagusi jokoa, baina haizea, Les Abelles eta norberaren akatsak aurkari gogorrak

Hernanik gehiago eduki zuen bere eskuetan baloia eta esan liteke gehiago jokatu zela Les Abellesen zelaian, baina akatsak ere nabarmenagoak izan ziren hernaniarren aldetik.

Lehendabiziko zatian haizearen alde jokatu zuten trikolorreek eta hori nabaritu zen batez ere 15garren minututik aurrera. Ordura arte talde bakoitzak en-

tsegu bana egin zuen -bedertzigarren minutuan Les Abellesek eta 12garrenean Hernanik Mattin Colladoren eskutik- eta partidua zazpina zegoen berdinduta.

Lehendabiziko 40 minutuak amaitu bitarte, Hernani nagusi zen eta partidua puskatzeko aukera ere izan zuela esan liteke. Aldiz, nagusitasun hori ez zen puntuetan gauzatu eta 37garren minutura arte ez zen iritsi bigarren entsegu. Betiko aurrelarien jokaldi batean Mikel Perezek 12-7 jarri zuen markagailuan eta aurkaria menpean

zuten. Azken minutu horietan hirugarren entsegu gertu izan arren ez zen iritsi.

Bigarren zatian eguraldiak okerrera egin zuen eta haizearen aurka jokatu zuten Polidorraren mutilek. Hasi eta berehala Colladok txartel horia ikusi zuen eta 12-10 jarri ziren valentziarrek. Gorria ere ikusi zuen Erroizenea aurrelariak, baina markagailuari ongi eusten zion Hernanik. Azken minutuetan entsegutik gertu ere egon ziren, baina azkenengo zorizaiztoko jokaldiak igoerarik gabe utzi zituen hernaniarrek. **K**

## Goizueta diruz lagunduko du Nafarroako Gobernuak

1.209.000 euroko dirulaguntza bideratuko du 87 herrietara eta Goizuetak, Artea eta Kultura 2020 programari dagokiona eskuratu du. Udal Platea da beste deialdia, baina hor ez du jaso laguntza.

### GOIZUETA KULTURA

Nafarroako Gobernuak 1.209.000 euroko dirulaguntzak eskainiko ditu Artea eta Kultura 2020 eta Udal Platea programen barruan.

Dirulaguntza honen onuradun 87 herri izanen dira eta deialdien bitartez, jarduera artistikoak eta kulturalak sustatu nahi dira. Goizuetak Artea eta Kultura 2020 programari dago-

kiona lortu du.

**40.000 biztanle baino gutxiagoko herrientzako** Deialdi honen irizpideen arabera, 40.000 biztanle baino gu-

txiagoko udalerrietako jarduera kulturalak zuzenean kudeatzen dituzten erakunde edo entitateek eskuratu ahal izanen dituzte laguntzak eta hor sartu da Goizueta. **K**

## Plenoak bihar egingo dira

### HERNANI-ASTIGARRAGA UDALA

Bihar egingo dira Plenoak Hernani eta Astigarragako udaletxeetan, 19:00etan hasita. Hernaniko gai-zerrenda oso laburra da, baina Astigarragan mami asko dago. Hamaika puntu ditu eta Egiari Zor Fundazioak aurkeztuko du mozioa besteak beste.

## Pentsiodunak ez dira elkartuko

### HERNANI JUBILATUAK

Hernaniko jubilatuen astelehenero biltzen dira Gudarien Plazan, eguerdian, baina gaur ez da elkarretaratzetik izango azken egunetan, pandemiagatik, hartu diren neurriengatik.

## Gaur da argazkiak aurkezteko azken eguna

### GOIZUETA EGUTEGIA

Landa eremuko emakumeak egutegi bat prestatzen ari dira. Helburua beraien bizitza eta egiten den lana ezagutaraztea da. Horretarako «gure zeregintan -baserriko lanak- agertzen garen argazkiak behar ditugu. Argazkiak bere izena, lekua, izenburua, hitz bat edo esaldi bat eraman behar dute». Gaurko entregatu behar dira argazkiak, 674 086 926 telefono zenbakian edo [jantxo@lagagi-zartezerbitzua.org](mailto:jantxo@lagagi-zartezerbitzua.org) helbidean.

## 52 urte bete ditu Santa Barbarak

### HERNANI ALKOHOLIKO ANONIMOAK

Urriarekin batera Hernaniko Alkoholiko Anonimoen Santa Barbara Taldeak 52 urte bete ditu. Pandemiaren ondorioz aurten ez da ekitaldi edo ospakizunik antolatuta, baina laguntza eskaintzen jarraitzen du 629 141 874 telefono zenbakian. Arazoak izanez gero deitzeo eskatzen dute.

## ALAI A

ODONTOLOGIA ZENTROA

PREBENTZIO ETA KONTSERBAZIO ODONTOLOGIA  
HORTZ ESTETIKA  
AHO KIRURGIA  
INPLANTEAK  
PROTESI FINKOA ETA MUGIKORRA  
PERIODONTZIA  
ORTHOAPNEA

ODONTOPEDIATRIA  
ERRADIOGRAFI PANDRAMIKOAK  
TELERRADIOGRAFIK  
3D SCANNERRA  
AHO BARRUKO SCANNERRA  
KIRURJIA NABEGATUA  
ORTODONTZIA KONBENTZIONALA ETA IKUSEZINA

ETENIK GABEKO ORDUTEGI BERRIA  
Astelehenetik ostiralera: 08:30 - 21:00  
Larunbatetan: 08:30 - 14:00

Antziola 11, behe. HERNANI Tel. 943 33 53 73 www.alaiaclinica.com alaiahernani@gmail.com

## FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Zerbitzu partikularrak eta asperu etxeekin  
Beilatokiak  
Ernasmaketak  
Lekualdatzak  
Eskelak, korak...

### Asegururik ba al duzu?

## Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.  
**943 33 10 20**  
www.funerariaorbegozo.com

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA  
Zentrala Latsunbe 7, Hernani

**GAUR** Tenperatura koska bat beherago geratuko da eta zaparradak botako ditu lainoguneak pilatuko ondoren; baliteke ekaiz kutsuko zaparradak izatea. Tenperatura maximoak 12-15 °C artekoak izango dira. **Min.10° / Max.15°**

**BIHAR** Lainoguneak gailenduko dira eta tarteka euri txikia egingo du, probabilitate haundiagorekin arratsaldean. Tenperaturak pittin bat igoko dira hego mendebaldeko haizearen ondorioz. **Min.10° / Max.17°**

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087** **Gaez:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



## Alarma egoera ezarri da bi astez eta maiatzera arte luzatu daiteke

Pedro Sánchez presidenteak iragarri du eta etxeratze agindua ere jarri da abian. Erkidegoetako agintariek lurraldeak konfinatu ditzazkete.

**URUMEA COVID-19**

Pedro Sanchez, Espainiako Gobernuko presidentea, atzo egindako ezohiko Ministroen Kontseiluaren ostean iragarri zuen, Espainia osorako alarma egoera onartu zela. Atzo arratsaldean sartu zen indarrean, COVID-19aren pandemiaren bigarren olatua dela eta. Oraingoz bi astetako iraupena du, 15 egunetako azaroaren 9ra arte, baina helburua da Gorte Nagusiek egoera hori sei hilabetez luzatzea, maiatzaren 9ra arte.

Bestalde, autonomia-erkidegoetako presidenteei beren lurraldeetan eskuordetutako agintaritzak izatea ahalbidetzen dien alarma-egoeraren deklarazioak aukera emango die beren lurraldeak erabat edo partzialki konfinatzeko.

**Etxeratze-agindua 23:00etatik 06:00etara, baina autonomiek moldatu dezakete ordu bete**  
Halaber, etxeratze-agindua ezarri da 23:00etatik 06:00ak arte, baina autonomiek modulatu dezakete, 22:00etara aurreratu edo 24:00ak arte atzeratu. Goizeko bostetan edo zazpitan amaitzeko ere alda dezakete.

**Autonomia-erkidegoek beren lurraldea edo lurraldearen zati bat itxi ahal izango dute**  
Autonomia bakoitzak, Nafarroa-



*Etxeratze-agindua ezarri da 23:00etatik 06:00etara.*

ko Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak, mugatu ahal izango dute bere lurraldeko sarrera eta irteera, hau da, eskualde osoaren edo lurraldearen zati baten perimetro-itxiera, baina salbuespenak ere egongo dira, hala nola osasun-zentroetara joatea, ikastetxeetara joatea edo lan-arrazoak, besteak beste.

**Sei pertsona baino gehiagoko bilera sozialak debekatuta**  
Sei pertsona baino gehiagoko bilerak egitea debekatzen da, autonomia erkidego askotan gertatzen ari den bezala; izan ere, funtsezkoa da pertsonen arteko harremana mugatzea.

**Alarma altxatzen da egoera hobetzen bada**  
Sanchezek azpimarratu zuenez, alarma-egoera horren iraupena «ez da mugiezina», eta egoera gaindituz gero, bertan behera gera daiteke, baina gaineratu zuen sei hilabeteko iraupena

hori dela adituek aholkatzen duten epea, bigarren olatu hori ez ezik, Covideko etaparik «kaltegarria» ere gainditzeko.

Sanchezek Kongresuko talde parlamentario guztiei eskatu die alarma egoera luzatzeari «babes guztia» eman diezaiotela, horren aplikazioari buruzko konatuak eman beharko dituztelako.

**Eusko Jaurlaritzak gaur hartuko ditu neurriak**  
Sanchezek azaldu zuenez, egoera «muturrekoa» da, 100.000 biztanleko 378 kasu daude eta azken astean 650 hildako baino gehiago izan dira.

Hori dela eta, pandemiaren bigarren olatu hori «makurrarazteko» diziplina eta erresistentzia «haundia» erabiltzea eskatu du Sanchezek.

Bestetik, atzo arratsaldean Eusko Jaurlaritzatik adierazi zen gaur neurri berriak hartu eta jarririko dituztela martxan kasuak murrizteko bidean. **K**

## Karmen Iradi omendu zen Harriatsu eskolako ospakizunean

**HERNANI OSIÑAGA**  
Harriatsu eskolako ikasle ohien topaketa ospatu zen Pilar egunean, urriaren 12an. Aurten 30garren aldiz elkartu ziren Harriatsu eskolan bertan. Egoerak eskatzen dituen neurri guztiak beteta, bildutakoek Karmen Iradi, Argindegi base-erriko, omendu zuten.



*Karmen Iradi, anaia ondoan duela, mikrofonoarekin.*

**JASOTA BEZALA**

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kateak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzulterako garaietan izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

## Guk ez dugu uzten

Duela egun batzuk, EH Bilduko parlamentari baten adierazpen batzuk entzun nituen, pixka bat deskokatuta utzi nindutenak. «Gizarte zerbitzuen munduan 15 urte» zeramatza eta «EAJ eta PSEren gehiengo absolutuaren arrabola» alde egiten zuela esan zuen. Otegi jaunari ere irakurri diot, egungo Eusko Jaurlaritzak aipatuz: «2020ko aurrekontuak onartzeko arrabola erabiliko dute».

Harrigarria. Azken 9 urteetan Hernanin EH Bilduk nola gobernatu duen aztertzea gonbidatzen zaituztet, 'lau egun' daramatzazuen legegintzaldi honetan bizitza tokatzen zaionekin alderatu dezazuen.

Bi politikari horien adierazpenekin, badirudi EH Bilduk formula perfektua duela eta bereaiek desberdin jokatu lukete. Hernanin ikusi nahi nuke predikatzen dutena eta nola alderdi politikoko kideek ez duten arra-

bola erabiltzen gehiengo absolutuarekin.

Hernaniko EAJ-PNVko zenbait zinegotzik, besteak beste sinatzen duenak, 17 urte daramatzagu gure herriaren alde lanean, eta horietatik 9 oposizioan egon gara, EH Bilduk gehiengo absolutua lortuta. Bertatik bertara dakigu zer den benetako arrabola, eta estoikoki egiten duguna da eutsi.

Guk lanean jarraitzen dugu, EH Bildu gaizki egiten ari dela uste duguna kritikatzeko eta hernaniarrei eskatzen diguten guztian laguntzen. Jarrera horrek eta gure lanak 2007an 2 zinegotzi izatetik 2019an 6 izatera eramango gaitu. Etsipenak eta abandonuak ez dute lekurik EAJ-PNVren lerroetan. Guk ez dugu utzi.

**Andoni Amonarraig**  
**Hernaniko Udalean EAJ-PNVko bozeramailea**

## Aurrekontu partehartzailearen bilera Oialumen bertan behera geratu da

**ASTIGARRAGA UDALA**

Udalak antolatutako, jende pilaketak eragin ditzaketan, taldeko ekintza eta ekitaldiak bertan behera utzi dira Astigarragan. Honela, gaur Oialumen egitekoa zen aurrekontu partehartzaileen inguruko bertan behera geratu da. Atzo egitekoa zen antzerkia ere ez zen eskaini Erribera kultur gunean. Kultur agenda ere geratu egin da eta oraingoz ez da kultur ekitaldirik antolatuko. Udal zerbitzuekin harremanak ahal dela telefonoz edo telematikoki izango dira, aurrez hitzordua hartuta. Elkarte eta eragileei proposatu zaie egiten dituzten taldeko jarduerak bertan behera uzteko. Honela, Zipotzak ez zuen mendi irteera egin nahiz eta atzoko Kronikan aurrera eramango zela esan. Egoera aldakorra da oso egunetik egunera eta hartuko diren erabakien berri datozen egunetan emango dira.

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

II. URTEURRENA

**Pilar Lombide Idarreta**

*Gure ondotik joan zara, baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.*

*Zure falta sumatzen dugu.*

**ETXEKOAK**



**Hernanin, 2020ko urriaren 26an**

## IRAGARKI MERKEAK

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**